



Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2020ko urtarrilaren 15ean, araudi indardunari jarraituz, txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratudunen ordainsariei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea ezen, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratudunen ordainsariek ehuneko 2ko gehikuntza orokorra izanen dutela behin-behinekoz, hori baita Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat aurreikusitako portzentajea.

2. Onestea maila bakoitzaren hasierako soldatak 2020. urterako. Honako hauek dituzte urteko zenbatekoak:

Maila Urteko zenbatekoa

A	27.435,24 euro
B	23.080,40 euro
C	19.146,12 euro
D	16.674,70 euro
E	14.667,24 euro.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

LEHENDAKARIA



Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, bestek bestek:

Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2020ko urtarrilaren 15ean, txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2020an jasoko dituzten ordainsariak behin-behinekoz ehuneko 2 igotzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako hauek izanen direla Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinak:

- Lehendakartzako Kabineteko burua: 54.946,22 euro.
- Lehendakartzako idazkaria: 41.332,62 euro.
- Mahaiko kideen idazkaria: 33.444,32 euro.
- Talde parlamentarioen laguntzaileak: 33.444,32 euro.

2. Talde parlamentarioen laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea 2012ko abenduaren 17ko Mahaiaren Erabakiaren bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

LEHENDAKARIA



Unai Hualde Iglesias